# 1. Informazioa ematen duen erakundearen identifikazioa

## 1.1. Izen soziala, helbide soziala eta eratze-data

EH BILDU ALDERDI POLITIKOEN FEDERAZIOA (aurrerantzean EH BILDU) 2014ko ekainaren 25ean eratu zen Federazio gisa. Identifikazio fiskalaren zenbakia G71206700 da.

Federazioaren helbide fiskala honako hau da:

Kale Berria 10
31001 – Iruña (Nafarroa)

Federazioaren webgunearen helbidea www.ehbildu.eus da, eta helbide elektronikoa ehbildu@ehbildu.eus.

Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatuta dauden SORTU, ALTERNATIBA eta EUSKO ALKARTASUNA alderdiek osatzen duten EUSKAL HERRIA BILDU alderdi politikoen Federazioa, baita ezein alderdi politikorekin zuzeneko loturarik ez duten pertsonen Federazioa ere.

Federazioa 2014ko urtarrilaren 17an eratu zen Alfredo Pérez Ávila notarioak eskuetsitako eskrituraren bitartez, 118 protokolo-zenbakiarekin eta aipatutako notarioak eskuetsitako beste eskritura baten bitartez zuzendu zen 2014ko martxoaren 27an eta Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatuta dago Inskripzio Liburuaren VIII. Liburukiaren 292. folioan.

## 1.2. Oinarrizko antolamendu-egitura[1]

FEDERAZIOAREN ORGANOAK

### NAZIO BILTZARRA

EH BILDUREN goreneko organoa da eta haren funtzioak EH BILDUREN estatutuetako 15. artikuluan garatuta daude.

### BATZAR NAGUSIA

Biltzarren arteko goreneko organoa da eta haren funtzioak EH BILDUREN estatutuetako 16. artikuluan garatuta daude.

### HEGOALDEKO MAHAI POLITIKOA

EH BILDUREN zuzendaritza politikoko organoa da eta haren funtzioak EH BILDUREN estatutuen 17. artikuluan garatuta daude.

### ALDERDIEN MAHAIA

EH BILDU osatzen duten alderdien ordezkaritza-organoa da eta haren funtzionamendua EUSKAL HERRIA BILDUREN estatutuetako 19. artikuluan garatuta dago.

### HERRIALDEKO BATZARRA

Herrialde-mailan erabakiak hartzen dituen goreneko organoa da eta haren funtzionamendua EH BILDUREN estatutuetako 20. artikuluan garatuta dago.

### HERRIALDEKO MAHAI POLITIKOA

Herrialde-mailako zuzendaritza politikoko organoa da, eta haren funtzionamendua EUSKAL HERRIA BILDUREN estatutuetako 21. artikuluan garatuta dago.

---

1

### TOKI-BATZARRA

Hiri-mailan erabakiak hartzen dituen goreneko organoa da eta haren funtzionamendua EUSKAL HERRIA BILDUREN estatutuetako 22. artikuluan garatuta dago.

### TOKIKO MAHAI POLITIKOA

Toki-mailako zuzendaritza politikoko organoa da, eta haren funtzionamendua EUSKAL HERRIA BILDUREN estatutuetako 23. artikuluan garatuta dago.

### KONTROL- ETA BERME-BATZORDEA

EH BILDUREN funtzionamendua demokratikoa eta gardena izatea zaintzen duen eta BILKIDEAK ez ezik, estatutuak ere defendatzen eta bermatzen dituen organoa da, eta haren funtzionamendua EUSKAL HERRIA BILDUREN estatutuetako 24. artikuluan garatuta dago.

### KONTU-BATZORDEA

Barneko fiskalizazio-organoa da, honako alderdi hauek bermatzen dituena: kontabilitatearen kontrola eta gainbegiratzea, EH BILDUREN baliabide ekonomikoak eta ondare-baliabideak behar bezala erabiltzen direla eta gobernu-organoek garatzen dituzten eduki ekonomikoko ekintzen estatutu-legezkotasuna. Organo horren funtzionamendua EUSKAL HERRIA BILDUREN estatutuetako 25. artikuluan garatuta dago.

## 1.3. Urteko kontuetan txertatutako kontabilitateak.

8/2007 Lege Organikoaren 14. artikuluko bosgarren zenbakiari jarraikiz, Federazio bat denez gero urteko kontuak era bateratuan formulatu eta aurkeztu behar dira.

EH BILDU Federazioak bateratu gabe aurkeztu ditu urteko kontuak dagokion epean.

Federazioaren Alderdi kideek kontuak bateratzeko behar den informazioa ematen dutenean, Federazioak informazio hori aurkeztuko du bateratze-doikuntzak espresuki adierazita MEMORIAN.

### 1.4. Lotutako aldeak

Ez dago Federazioari lotutako Fundaziorik eta gazte-erakunderik, eta Federazioak ez du partaidetzarik ezein sozietatetan, urteko kontu hauek lantzeko arauen 11. puntuan deskribatutakoari jarraikiz.

### 1.5. Urteko kontuek hartzen duten aldia

Kontuek hartzen duten ekitaldi ekonomikoa 2019ko urtarrilaren 1ean hasten da eta 2019ko abenduaren 31n bukatzen da.

## 2. Hauteskunde-jarduerak:

2.1. EH BILDU Federazioak parte hartu du, kontu hauei dagokien ekitaldian, jarraian zerrendatzen diren hauteskunde hauetan:

Maiatzaren 26an, EH BILDU Federazioak Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako toki-hauteskundeetan parte hartu zuen.

Egun berean, EH BILDU Federazioak Nafarroako Parlamenturako hautagaitza aurkeztu zuen.

Halaber, maiatzaren 26an, EH BILDU Federazioak Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan parte hartu zuen.

Apirilaren 28an, EH BILDU Federazioak Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskunde orokorretan parte hartu zuen.

Azaroaren 10ean, EH BILDU Federazioak Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskunde orokorretan parte hartu zuen.

Hauteskunde-deialdi horietan guztietan bakarka parte hartu zuen, beste inorekin koaliziorik sortu gabe, eta hauteskunde-kontabilitateak %100ean integratu dira urteko kontu hauetan.

2.2. Maiatzaren 26an, Europako Parlamenturako hauteskunde-deialdian parte hartu zuen, ORAIN ERREPUBLIKAK Koalizioa osatuz ERC eta BNG alderdi politikoekin batera.

Hauteskunde-kontabilitatea %28,50 integratu zen urteko kontuetan, koalizioko itun eta akordioei jarraikiz.

## 3. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

### 3.1. Irudi leiala

a) Urteko kontuak Federazioaren kontabilitate-erregistroetan oinarrituta prestatu dira, eta Federazioaren Zuzendaritzak kontabilitate-arloan indarrean dauden lege-xedapenak aplikatu ditu, Federazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi leiala islatzeko.

b) Ez dago aparteko ezein arrazoirik irudi leiala agertzeko garaian kontabilitate-arloko lege-xedapenen bat bete gabe utzi behar izateko.

c) Era berean, ez dago txertatu beharreko ezein informazio osagarririk, kontabilitate-arloko lege-xedapenak eta oro har onartuta dauden kontabilitate-printzipioak nahikoak baitira Koalizioaren irudi leiala agertzeko.

d) Irudi leiala agertzeko, ez da izan nahitaezko kontabilitate-printzipioren baten aplikaziorik eza justifikatzen duen aparteko arrazoirik.

Era berean, ez da aplikatu nahitaezkoa ez den bestelako kontabilitate-printzipiorik irudi leiala agertzeko.

## 3.2. Informazioaren konparazioa

a) Erantsitako finantzen egoera-orriek aurtengo (2019) ekitaldiari dagozkion kontabilitate-saldoak jasotzen dituzte, eta Talde Politikoetara Egokitutako Kontabilitate Planean eta, hala badagokio, Kontabilitate Plan Orokorrean jasotako printzipioei jarraikiz prestatu dira.

b) Ez dago ekitaldi honetako urteko kontuen eta aurreko urtekoen arteko konparazioa eragozten duen arrazoirik.

## 3.3. Hainbat partidatan bildutako elementuak

Ekitaldia itxi denean, Federazioak ez dauka partida batean baino gehiagotan jasota dagoen ondare-elementurik Balantzean, Galdu-Irabazien Kontuan eta Ondare Garbiko Aldaketen egoera-orrian.

## 3.4 Aldaketak kontabilitate-irizpideetan

Erantsitako kontuei dagokien ekitaldian, ez da irizpide-aldaketarik gertatu aurrekoen aldean.

## 3.5. Okerren zuzenketa

Erantsitako kontuei dagokien ekitaldian, ez da aurreko ekitaldietako ezein okerren zuzenketarik egin.

# 4. Erregistratzeko eta balioesteko arauak

## 4.1. Ibilgetu ukiezina

Balantzean agertzen diren Federazioaren ondasunak eskuratze-kostuan balioetsita daude. Etorkizunean eskuratzen diren ondasunek balioespen-arau berari jarraituko diote.

Amortizaziorako urteko hornidura metodo linealaren bidez kalkulatzen da, merkataritza- eta zerga-eremuan legez onar daitezkeen amortizazio-ehunekoak aplikatuta.

Itxitako azken ekitaldiko galdu-irabazien konturako kargua –ibilgetu ukiezinaren amortizazio gisa– 0 € izan zen.

## 4.2. Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala eskuratze-kostuan agertzen da, eta erosketa-faktura, garraio-gastuak, asegurua, aduanak (baldin badaude), zergak eta instalatzeko eta abian jartzeko kostuak sartzen dira bertan, finantza-gastuak kontuan hartu gabe. Zenbateko kontingentearen egungo balioaren zenbatespenik onena gorabehera, jardueraren garapenari lotutako magnitudeen araberako ordainketa kontingenteak egiten diren heinean kontabilizatzen dira gastu gisa galdu-irabazien kontuan.

Ibilgetu materialeko ondasunen etorkizuneko eskuratzeen kontura emandako zenbatekoak aktiboan erregistratzen dira, eta aurrerakinari lotutako aktiboaren balioa eguneratzean sortzen diren doikuntzak diru-sarrera finantzarioen aitorpena dakarte, sortzen diren heinean. Horretarako, hasieran dagoen hornitzailearen interes-tasa inkrementala erabiltzen da, hau da, hornitzailea jasotako zenbatekoaren emaitzazkoen baldintza berdinetan finantzatu ahal izateko interes-tasa, eta ez da aldatuko ondorengo ekitaldietan. Gehienez ere urtebeteko muga-eguna duten eta finantza-ondorio esanguratsurik ez duten aurrerakinen kasuan, ez da beharrezkoa izango ezein eguneratze mota egitea.

Bizitza baliagarriaren zabalkuntzarik ez dakarten zabalkuntzak, modernizazioa, hobekuntzak eta konponketak eta mantentze-gastuak galera-irabazien kontuan kargatzen dira zuzenean. Ondasunaren iraupena handiagoa izatea ekarriko duten zabalkuntza- eta hobekuntza-kostuak ondasunaren balio handiago gisa kapitalizatzen dira.

Amortizaziorako urteko hornidura metodo linealaren bidez kalkulatzen da ondasunen kalkulatutako bizitza erabilgarriaren arabera, merkataritza- eta zerga-eremuan legez onar daitezkeen amortizazio-ehunekoak aplikatuta.

Eskuratutako ibilgetua ondasun erabilia bada, tauletan zehaztutako ehunekoaren bikoitza erabiliz amortizatuko da.

Lursail eta orubeei dagokienez, ez dira amortizatzen, Kontabilitate Plan Orokorrari jarraikiz.

Itxitako azken ekitaldiko galdu-irabazien konturako kargua –ibilgetu materialaren amortizazio gisa– 41.002,20 € izan zen, aurreko ekitaldikoa 26.200,00 € izanik.

### 4.3. Higiezinetako inbertsioak

Federazioak ez du higiezinetako inbertsiorik egin ekitaldi osoan.

### 4.4. Ondare historiko-artistikoa osatzen duten ondasunak

Federazioak ez du horrelako ondasunik.

### 4.5. Finantza-errentamenduak

Ez da finantza-errentamendurik egin

### 4.6. Trukaketak

Ez da trukaketarik egin

### 4.7. Finantza-inbertsioak

Federazioaren epe luzerako finantza-inbertsioak alokatutako lokaletan jarritako fidantzak dira, eta 2019. urtean 32.029,20 eurora iritsi dira.

5.656,49€ gehiago izan dira aurreko urtean baino, zenbait udalerritan fidantzak eratu direlako lokalen alokairuagatik.

### 4.8. Kredituak eta Zordunketak

Federazioak ez ditu likidatu oraindik:

Ekitaldiaren itxieran, 827.840,00 euroko diru-kopurua oraindik ordaindu gabe zeukaten kargudun publikoek eta erakunde-taldeek

Administrazio publikoekiko kredituak: 1.584.231,11€, honela banakatuta:

| | |
|---|---|
| 2019ko apirileko Hauteskunde Orokorrak | 131.091,63 |
| Bizkaiko Batzar Nag. Hauteskudeak | 13.245,60 |
| Arabako Batzar Nag. Hauteskundeak | 94.493,99 |
| Gipuzkoako Batz. Nag. Hauteskundeak | 46.494,69 |
| Europako Parlament. Hauteskundeak | 93.190,68 |
| Udal Hauteskundeak (estimazioa) | 734.138,93 |
| 2019ko azaroko Hauteskunde Orokorrak | 471.575,59 |

### 4.9. Izakinak

Izakinetan 3.500,00€-ko aurrerakinak agertzen dira:

### 4.10. Jardueraren zerga-kontsiderazioa

Federazioak ez du BEZarekin lotutako eragiketarik egiten
Sozietateen gaineko Zerga ez da ORDAINDU behar, zerga horren mendeko jarduera ekonomikorik ez delako egiten.

### 4.11. Diru-sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak erregistratzean, sortzapen-irizpidea aplikatzen da, hau da, eragiketak korronte erreala gertatzen denean erregistratzen dira, diru-sarrera eta gastu horien ondoriozko moneta- edo finantza-korrontea gertatzen den unea edozein izanik ere.

Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan eta hauteskunde-araudian ezarritakoari jarraikiz, EH BILDUK bereiz erregistratuko ditu diru-sarrera arruntak, hauteskundeetako diru-sarrerak eta hauteskunde-gastu arruntak, eta, aldi berean, adierazitako gastuen artean, hauteskunde-publizitatearen bidalketek eragindakoak eta adierazitako hauteskunde-araudian aurreikusita dauden muga batzuei lotutakoak bereiziko dira.

Jatorri publikoa duten diru-sarrera arruntak honako hauek izan dira:

| | |
|---|---|
| Funtzionamendu-gastuen dirulaguntzak | 1.551.288,36 |
| Erakunde-taldeen ekarpenak | 4.655.675,14 |
| Ekitaldian egotzitako segurtasun-gastuak | 0,00€ |
| Jatorri publikoa dutenak, guztira | 6.206.963,50€ |

Jatorri pribatua duten diru-sarrera arruntak honako hauek izan dira:

| | |
|---|---|
| Kargudun publikoen ekarpenak | 1.638.603,20€ |
| Afiliatuen kuotak | 35.125,00 |
| Jatorri pribatua dutenak, guztira | 1.673.728,20€ |
| DIRU-SARRERA ARRUNTAK, GUZTIRA | 7.880.691,70€ |

Jatorri publikoa duten hauteskundeetako diru-sarrerak honako hauek izan dira:

| | |
|---|---|
| Hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzak | 2.162.167,20 |
| Hauteskunde-bidalketengatiko dirulaguntzak | 1.454.697,41 |
| HAUTESKUND. DIRU-SARRERAK, GUZTIRA | 3.616.864,61€ |

**4.12. Hornidurak eta kontingentziak**

Arriskuetarako hornidura-funtsa 0,00€ da (2019ko ekitaldian ere 0,00€ izan zen).

Arrisku-hornidura horrek esan nahi du balioespen-zuhurtasunaren printzipioa zorrotz aplikatu behar dela.

## 4.13. Langile-gastuak erregistratzeko erabilitako irizpideak

Langile-gastuak erregistratzeko erabilitako irizpidea talde politikoetara egokitutako Kontabilitate Plan Orokorraren erregistro- eta balioespen-arauetan hitzartutakoa izan da.

## 4.14. Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Dirulaguntza ez-finalistak eta moneta-izaerako dohaintzak eta legatuak emaitzen kontuan kontabilizatzen dira zuzenean. Irizpide horri hauteskunde-gastuetarako dirulaguntzek, funtzionamendu-gastuetarako urteko dirulaguntzek eta ezohiko dirulaguntzek jarraitzen diote bereziki.

Gainerako dirulaguntzak PASIBO gisa kontabilizatzen dira hasieran.

## 4.15. Lotutako aldeen arteko transakzioetan erabilitako irizpideak

Lotutako erakundeen arteko transakzioetan erabilitako balioespen-irizpidea, hala badagokio, arrazoizko balioa izan da.

# 5. Ibilgetu materiala, ukiezina eta higiezinetako inbertsioak

## 5.1 Mugimenduaren azterketa

Ibilgetu Materialaren eta Ukiezinaren kontuen eta Higiezinetako Inbertsioen mugimendua honako hau izan da 2019ko ekitaldian:

| | Hasierako Saldoa | Sarrerak | Irteerak | Azken Saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Ibilgetu ukiezina | 0 | 0,00 | 0,00 | 0 |
| Ibilgetu materiala | 215.452,15 | 37.618,93 | 0,00 | 253.071,08 |
| Higiezin. Inbertsioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Aribid. Ibilget. Mater. | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **IBILGETUA GUZTIRA:** | 215.452,15 | 37.618,93 | 0,00 | 253.071,08 |

| | Hasierako Saldoa | Sarrerak | Irteerak | Azken Saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Ibilg. Ukiez. Am. Met. | 0 | 0 | 0,00 | 0 |
| Ibilg. Mat. Am. Metat. | 37.037,47 | 41.002,20 | 0.00 | 78.039,67 |
| Higiez. Inber. Am. Met. | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **AMORTIZ. GUZTIRA:** | 37.037,47 | 41.002,20 | 0,00 | 78.039,67 |

| | Hasierako Saldoa | Sarrerak | Irteerak | Azken Saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Ibilgetu Ukiezinaren Kontabilitate Balio Garbia | 0 | ----- | ----- | 0 |
| Ibilgetu Materialaren Kontabilitate Balio Garbia | 178.414,68 | ----- | ----- | 175.031,41 |
| Higiezinetako Inbertsioen Kontabilitate Balio Garbia | 0,00 | ----- | ----- | 0,00 |
| **KBG-A, GUZTIRA:** | 178.414,67 | ----- | ----- | 175.031,41 |

Ibilgetu Materialaren eta Ukiezinaren kontuen eta Higiezinetako Inbertsioen mugimendua honako hau izan zen 2018ko ekitaldian:

| | Hasierako Saldoa | Sarrerak | Irteerak | Azken Saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Ibilgetu ukiezina | 0 | 0,00 | 0,00 | 0 |
| Ibilgetu materiala | 47.529,69 | 167.922,46 | 0,00 | 215.452,15 |
| Higiezinetako Inbertsioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Aribideko Ibilgetu Materiala | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **IBILGETUA, GUZTIRA:** | 47.529,69 | 167.922,46 | 0,00 | 215.452,15 |

| | Hasierako Saldoa | Sarrerak | Irteerak | Azken Saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Ibilgetu Ukiezinaren Amortizazio Metatua | 0 | 0,00 | 0,00 | 0 |
| Ibilgetu Materialaren Amortizazio Metatua | 10.837,47 | 27.178,19 | 978,19 | 37.037,47 |
| Higiezinetako Inbertsioen Amortizazio Metatua | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **AMORTIZAZIOA, GUZTIRA:** | 10.837,47 | 27178,19 | 978,19 | 37.037,47 |

| | Hasierako Saldoa | Sarrerak | Irteerak | Azken Saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Ibilgetu Ukiezinaren Kontabilitate Balio Garbia | 0 | ----- | ----- | 0 |
| Ibilgetu Materialaren Kontabilitate Balio Garbia | 36.692,22 | ----- | ----- | 178.414,68 |
| Higiezinetako Inbertsioen Kontabilitate Balio Garbia | 0,00 | ----- | ----- | 0,00 |
| **KBG-A, GUZTIRA:** | 36.692,22 | ----- | ----- | 178.414,68 |

## 5.2. Honako hauei buruzko informazioa:

a) Amortizazioak

Amortizaziorako urteko hornidura metodo linealaren bidez kalkulatzen da ondasunen kalkulatutako bizitza erabilgarriaren arabera, legez onar daitezkeen amortizazio-ehunekoak aplikatuta.

# 6. Finantza-inbertsioak

## 6.1. Balioak

| Motak / Kategoriak | EPE LUZERAKO FINANTZA-TRESNAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ondare-tresnak | | Zorra adierazten duten balioak | | Kredituak, deribatuak eta beste batzuk | |
| | 2019 | 2018 | 2019 | 2018 | 2019 | 2018 |
| Arrazoizko balioko aktiboak, galdu-irabazietan aldaketak izan dituztenak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Muga-egunera arteko inbertsioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kobratu beharreko maileguak eta partidak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Saltzeko eskuragarri dauden aktiboak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Estalduraren deribatuak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Totala** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

| Motak / Kategoriak | EPE LABURRERAKO FINANTZA-TRESNAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ondare-tresnak | | Zorra adierazten duten balioak | | Kredituak, deribatuak eta beste batzuk | |
| | 2019 | 2018 | 2019 | 2018 | 2019 | 2018 |
| Arrazoizko balioko aktiboak, galdu-irabazietan aldaketak izan dituztenak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Muga-egunera arteko inbertsioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kobratu beharreko maileguak eta partidak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | *4.610.418,24* | *3.227.872.27* |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Saltzeko eskuragarri dauden aktiboak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Estalduraren deribatuak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Totala** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 4.610.418,24 | 3.224.872,27 |

| Motak / Kategoriak | **TOTALA** Epe luze eta laburrerako finantza-tresnak | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| Arrazoizko balioko aktiboak, galdu-irabazietan aldaketak izan dituztenak | 0,00 € | 0,00 € |
| Muga-egunera arteko inbertsioak | 0,00 € | 0,00 € |
| Kobratu beharreko maileguak eta partidak | 4.610.418,24 | 3.224.872,27 |
| Saltzeko eskuragarri dauden aktiboak | 0,00 € | 0,00 € |
| Estalduraren deribatuak | 0,00 € | 0,00 € |
| **Totala** | 4.610.418,24 | 3.224.872,27 |

## 6.2. Zuzenketa-kontuen mugimenduaren azterketa

Finantza-aktiboen kreditu-arriskuak eragindako narriaduragatiko galerak adierazten dituzten zuzenketa-kontuen mugimenduak honako hauek izan dira 2019o ekitaldian:

| **Zuzenketa-kontuak** | **Hasierako Saldoa** | **Zuzkidura** | **Itzulketa** | **Azken Saldoa** |
|---|---|---|---|---|
| Kontuak: 490–493 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 293-294-296-297 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 295-298 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 593-594-596-597 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 595-598 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **GUZTIRA:** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

Aurreko ekitaldian, (2018ko ekitaldia) honako hauek izan ziren:

| Zuzenketa-kontuak | Hasierako Saldoa | Zuzkidura | Itzulketa | Azken Saldoa |
|---|---|---|---|---|
| Kontuak: 490–493 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 293-294-296-297 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 295-298 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 593-594-596-597 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kontuak: 595-598 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **GUZTIRA:** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

## 6.3. Hauteskunde-prozesuen ondorioz ekitaldia ixtean kobratzeke dauden zordunei buruzko informazioa.

Hauteskunde-prozesuen ondorioz ekitaldia ixtean kobratzeke daudenak zehaztuko ditugu jarraian:

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO KREDITU gisa jasota daude BALANTZEAN

| | |
|---|---|
| .- 2019ko apirileko Hauteskunde Orokorrak | 131.091,63 |
| .- 2019ko azaroko Hauteskunde Orokorrak | 471.575,59 |
| .- Europako Parlamenturako Hauteskundeak | 93.190,68 |
| .- Bizkaiko Batzar Nagusiak | 13.245,60 |
| .- Arabako Batzar Nagusiak | 94.493,99 |
| .- Gipuzkoako Batzar Nagusiak | 46.494,69 |
| .- Udal Hauteskundeak | 731.138,93 |
| TOKI-ADMINISTRAZ. KREDITUAK, GUZTIRA | 1.584.231,11 |

Aipatzekoa da, Barne Ministerioaren eskutik inolako jakinarazpenik jaso ez duenez 2019ko udal-hauteskundeetan parte hartu izanagatik alderdiari dagokion dirulaguntzaren inguruan, parte-hartze horrengatik legokiokeen dirulaguntza kalkulatu duela EH BILDUK.

# 7. Finantza-pasiboak

## 7.1. Zorren muga-egunak 2019ko ekitaldiaren itxieran

| | Muga-egunak (urteak) | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | >5 | Totala |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak | 0 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0 |
| Finantza-errentamenduagatiko hartzekodunak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Beste zor batzuk | 42.423,02 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 42.423,02 |
| Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko zorrak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Merkataritza-hartzekodun ez-arruntak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Hornitzaileak | 0.00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0.00 |
| Beste hartzekodun batzuk | 160.608.16 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 160.608.16 |
| Ezaugarri bereziak dituzten zorrak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **TOTALA** | 203.031,18 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 203.031.18 |

## 7.2. Ekitaldiaren itxieran ordaintzeko geratzen diren maileguak

EH BILDU alderdiak ez du mailegurik formalizatu kreditu-erakundeekin, ez jarduera arrunta finantzatzeko, ez ekitaldiko hauteskunde-kanpainei aurre egiteko, eta beraz, ez du ERANSKINIK aurkezten kreditu-erakundeekiko kreditu eta maileguetako kontratu-baldintzak zehazteko, non emandako zenbatekoak, interes-tasak, amortizazioen epea, eta ekitaldia ixtean dauden zorrak adieraziko liratekeen.

## 7.3. Abalak eta bermeak

Ekitaldia ixtean EH BILDU alderdiak ez du bermatzen edo abalatzen mailegu edo kreditu-kontu bat ere.

# 8. Altxortegia

## 8.1. Altxortegi-funtsetako partiden mugimenduak

| Partida | Kontz. | Hasierako Sald. | Azken Saldoa |
|---|---|---|---|
| 572000001 | Euskadiko Kutxa | 25.170,82 | 1.771,37 |
| 572000002 | Euskadiko Kutxa | 684,34 | 644.34 |
| 572000003 | Nafarroako Udalak | 254.376,32 | 2.627,01 |
| 572000004 | Gipuzkoako Udalak | 354.952,67 | 28.152,16 |
| 572000005 | Bizkaiko Udalak | 108.336,27 | 66.292,00 |
| 572000006 | Arabako Udalak | 176.306,41 | 27.126,68 |
| 572000008 | Funtz. Arrunta | 711.090,99 | 358.536,22 |
| 572000009 | Eusko Legebiltzarra | 206.875,65 | 22.536,02 |
| 572000010 | Madrilgo Kongresua | 360.777,67 | 219.448,17 |
| 572000011 | Herrien Funtz. | 461.277,04 | 633.475,62 |
| 577000001 | Afiliatuak | 18.612,19 | 50.135,98 |
| 578000001 | J. Kargudun Publikoak | 259.018,13 | 142.939,56 |
| 578000002 | Arabako Karg. Publ. | 0.00 | 71.476,26 |
| 578000003 | Bizkaiko Karg. Publ. | 0.00 | 122.092,69 |
| 578000004 | Gipuzkoako Karg. Pub. | 0.00 | 125.800,88 |
| 578000005 | Nafarroako Karg. Pub. | 0,00 | 42.843.36 |
| 580000001 | Gorteak 2029ko apirila | 0,00 | 3.045,05 |
| 580000002 | Nafarroako Parl. | 0,00 | 124.875,81 |
| 580000003 | Gipuzkoako Nagusiak | 0,00 | 34.939,59 |
| 580000004 | Bizkaiko Batzar Nagusiak | 0,00 | 25.260,70 |
| 580000005 | Arabako Batzar Nagusiak | 0,00 | 6.086,74 |
| 580000006 | Udal Hauteskundeak | 0,00 | 2.482,32 |
| 580000007 | Europako Parl. Hautesk. | 0,00 | 9.028,47 |
| 580000008 | Gorteak 2019ko azaroa | 0,00 | 124,65 |

## 8.2. Kreditu-erakundeetako kontu korronteen izaera

### Funtzionamendu arrunteko kontu korronteak

| Kontabilitate Partida | Identifik. | Hasierako Saldoa | Azken Saldoa |
|---|---|---|---|
| 572000001 | Euskadiko Kutxa | 25.170,82 | 1.771,37 |
| 572000002 | Euskadiko Kutxa | 684,34 | 644.34 |
| 572000008 | Funtz. Arrunta | 711.090,99 | 358.536,22 |
| 572000011 | Herriak | 461.277,04 | 633.475,62 |

### Kuotak sartzeko kontu korronteak

| | | | |
|---|---|---|---|
| 577000001 | Afiliatuak | 18.612,19 | 50.135,98 |

### Erakunde-taldeen ekarpenak eta funtzionamendu-gastuetarako dirulaguntzak sartzeko kontu korronteak.

| | | | |
|---|---|---|---|
| 572000003 | Nafarroako Udalak | 254.376,32 | 2.627,01 |
| 572000004 | Gipuzkoako Udalak | 354.952,67 | 28.152,16 |
| 572000005 | Bizkaiko Udalak | 108.336,27 | 66.292,00 |
| 572000006 | Arabako Udalak | 176.306,41 | 27.126,68 |
| 572000009 | Eusko Legebiltzarra: | 206.875,65 | 22.536,02 |
| 572000010 | Madrilgo Kongresua | 360.777,6 | 219.448,17 |

### Ekarpenak sartzeko kontu korronteak

| | | | |
|---|---|---|---|
| 578000001 | Jaurl. Kargudun Publ. | 259.018,13 | 142.939,56 |
| 578000002 | Arabako Karg. Publ. | 0.00 | 71.476,26 |
| 578000003 | Bizkaiko Karg. Publ. | 0.00 | 122.092,69 |
| 578000004 | Gipuzkoako Karg. Publ. | 0.00 | 125.800,88 |
| 578000005 | Nafarroako Karg. Publ. | 0,00 | 42.843.36 |

### Hauteskundeetarako kontu korronteak

| | | | |
|---|---|---|---|
| 580000001 | Gorteak 2029ko apirila | 0,00 | 3.045,05 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 580000002 | Nafarroako Parl. | 0,00 | 124.875,81 |
| 580000003 | Gipuzkoako Batzar Nag. | 0,00 | 34.939,59 |
| 580000004 | Bizkaiko Batz. Nag. | 0,00 | 25.260,70 |
| 580000005 | Arabako Batz. Nag. | 0,00 | 6.086,74 |
| 580000006 | Udal Hauteskundeak | 0,00 | 2.482,32 |
| 580000007 | Europako Parl. Hautesk. | 0,00 | 9.028,47 |
| 580000008 | Gorteak 2019ko azaroa | 0,00 | 124,65 |

## 9. Ondare garbia

| **ONDARE GARBIA** | **4.613.384,19** |
|---|---|
| Aurreko ekitaldietako soberakina | 3.278.959,88 |
| Ekitaldiko emaitza | 4.515.017,21 |
| Dibidenduak | -3.180.592,90 |

## 10. Zerga-egoera

### 10.1. Zerga-araubide aplikagarria

Foru Arauaren arabera, Sozietateen gaineko Zergatik Partzialki salbuetsita dagoen Sozietatearen aplikazioa dagokio.

Sozietateen gaineko Zergaren mendeko jarduerarik egiten ez duenez, zerga ordaintzetik salbuetsita dago.

### 10.2. Sozietateen gaineko zergari egotz dakizkiokeen diru-sarrera eta gastuen zatia

Federazioak bere fundazio-xedetik kanpoko jarduerarik egin ez duenez gero, ez du bere diru-sarreren eta emaitzen ezein kopururik gehitu Sozietateen gaineko Zergarako.

### 10.3. Zerga-karga aurreratua eta zerga-karga geroratuaren zenbatespena

Ez du zerga-karga aurreratua egin behar izan eta ez du zerga-karga geroratuaren zenbatespenik egin.

### 10.4. Talde politikoak aplikatutako zerga-onurak

Ez du zerga-onurarik aplikatu.

### 10.5. Konpentsatzeko geratzen diren oinarri negatiboak.

Ez dauka konpentsatzeko geratzen den oinarri negatiborik.

### 10.6. Beste zerga batzuk

Beste zerga batzuetako kontuen mugimendua ez da esanguratsua, eta beraz ez da ezer ere aipatu behar.

## 11. Hornidurak eta Kontingentziak

Balantzean ez da hornidura eta kontingentziei buruzko oharrik jaso, eta beraz, ekitaldian zehar balantze-partida bakoitzak izandako mugimenduen berri ez da ematen, ezta hasierako eta amaierako saldoen edota murrizketa zein igoeren berri ere.

## 12. Diru-sarrerak

### 12.1. Dirulaguntza, dohaintza eta legatuen zenbatekoa, ezaugarriak eta izaera.

| **Finantzaketa publikoa** | **2.019** | **2.018** |
|---|---|---|
| Hauteskundeetarako dirulaguntzak | 3.616.864,61 | 0,00 |
| Funtzionamendu-gastuen dirulaguntzak | | |
| Estatukoak | 517.461,85 | 379.174,21 |
| Autonomia Erkidegokoak | 1.033.826,51 | 1.033.826,51 |
| Segurtasun-gastuen aplikazioa | 0,00 | 5.423,83 |
| Legebiltzar-taldeen finantziazioa | | |
| Gorte Nagusiak eta Senatua | 203.638,09 | 70.503,96 |
| Toki-erakundeen taldeen finantziazioa | 4.452.037,05 | 4.271.402,37 |
| **Finantziazio publikoa guztira** | **9.823.828,11** | **5.760.330,88** |

| **Finantziazio pribatua** | **2.019** | **2.018** |
|---|---|---|
| Afiliatuen kuotak | 35.125,00 | 13.445,00 |
| Afiliatu eta kargudunen ekarpenak | 1.638.603,20 | 812.076,61 |
| Dohaintzak eta legatuak | 0,00 | 0,00 |
| Jarduera propioen emaitza | 0,00 | 0,00 |
| Beste diru-sarrera pribatu batzuk | 4.502,52 | 4,03 |
| **Finantziazio pribatua guztira** | **1.678.230,72** | **825.525,64** |

## 12.2. Dirulaguntzekin lotutako baldintza betetzeari buruzko informazioa

Ekitaldian, 26.570,12 euroko dirulaguntzak jaso dira segurtasun-gastuetarako. Horrelako gasturik sortu ez denez, horien zenbatekoak balantzeko Pasiboan ageri dira, epe laburrerako zorretan.

Segurtasun-gastuetarako dirulaguntzen itzulketarik ez da egin.

## 12.3. Dirulaguntza publikoen eta dohaintza pribatuen zerrenda

| | |
|---|---|
| Finantziazio arrunteko estatuko dirulaguntzak | 517.461,85 |
| Segurtasun-gastuen finantziazioa | 26.570,12 |
| Senatuko legebiltzar-talde mistoaren dirulag. | 50.099,25 |
| ERC – EH BILDU Senatuko Taldearen dirulag. | 4.776,56 |
| Dip. Kongresuko legebiltzar Talde Mistoaren dirulag. | 113.062,28 |
| Dip. Kongresuko EH BILDUREN Legebiltzar Taldearen dirulag. | 34.700,00 |
| Finantziazio arrunteko dirulag. autonomikoa | 1.033.826,51 |
| Arabako Batzar Nagusiak | 474.156,95 |
| Bizkaiko Batzar Nagusiak | 367.165,49 |
| Gipuzkoako Batzar Nagusiak | 574.666,64 |
| Nafarroako Legebiltzar Taldea | 427.148,81 |
| Legebiltzar Talde autonomikoa | 876.991,40 |
| Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako udal-taldeak | 1.731.904.76 |

Ekitaldi honetan, alderdiak ez du dohaintza pribaturik jaso pertsona fisikoen eskutik.

## 12.4. Kuota eta ekarpenei buruzko informazioa

Ekitaldi honetan, alderdiak 35.125,00 euro jaso ditu bere afiliatuen kuoten kontura.

Aurreko ekitaldian, kuoten zenbatekoa 13.445,00 euro izan zen.

Alderdiak sistema informatizatu bat ezarri du kuotak kobratzeko. Hilero-hilero, kopuru finko bat bidaltzen da afiliatu bakoitzaren eskutik eta haren izenean, afiliatuaren izen-abizenak eta zenbatekoen jatorriko eta helmugako kontu-korrontearen zenbakia adierazita.

Alderdiak kontu korronteko zenbaki espezifiko bat dauka kuotak kobratzeko, eta, artxibo batean, afiliatuen filiazio osoa dago jasota.

Alderdiak ez du diru-sarrera anonimorik onartzen, alor horretako araudia betez.

Ekitaldi honetan, alderdiak 1.638.603,20 euroko zenbatekoa jaso du bere kargudun publikoen nahitaezko ekarpenen eskutik.

Aurreko ekitaldian, zenbateko hori 812.076,61 izan zen.

Ekarpenak izena emanez egiten dira, eta xede horretarako irekitako kontu korronteetan, non, sarrera egitean, jatorriko eta helmugako kontu korrontearen zenbakia adierazten den, diru-sarrera egiten duen kargudun publikoaren izen-abizenekin batera.

Probintzia bakoitzak (Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba), kontu korronte bereizi batean egiten ditu diru-sarrerak, ekarpena egiten duen kargudun publikoaren jatorriaren arabera.

## 12.5. Hauteskundeetarako diru-sarrerei buruzko informazioa

Ekitaldi honetan, alderdiari honako eskubide hauek onartu zaizkio hauteskundetarako dirulaguntzei loturik:

2019ko apirileko Diputatuen Kongresurako Hauteskunde Orokorrak:

| | |
|---|---|
| Hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzak | 310.021,42 |
| Bidalketengatiko dirulaguntzak | 379.934,55 |
| Ekitaldia ixtean jaso gabe | 131.091,63 |

Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak

| | |
|---|---|
| Hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzak | 135.718,00 |
| Hauteskunde-bidalketengatiko dirulaguntzak | 115.866,00 |
| Ekitaldia ixtean jaso gabe | 0,00 |

Bizkaiko Batzar Nagusiak

| | |
|---|---|
| Hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzak | 166.350,32 |
| Ekitaldia ixtean jaso gabe | 13.245,60 |

Arabako Batzar Nagusiak

| | |
|---|---|
| Hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzak | 135.119,69 |
| Ekitaldia ixtean jaso gabe | 94.493,99 |

Gipuzkoako Batzar Nagusiak

| | |
|---|---|
| Hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzak | 244.708,94 |
| Ekitaldia ixtean jaso gabe | 46.494,69 |

Europako Parlamenturako Orain Errepublikak koalizioa, % 28,50eko parte-hartzearekin.

| | |
|---|---|
| Hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzak | 310.958,03 |
| Ekitaldia ixtean jaso gabe | 93.190,68 |

Udal-hauteskundeak

Inolako ebazpenik ez dagoenez, Federazioak berak kalkulatu ditu behean zehaztutako zenbatekoak.

| | |
|---|---|
| Hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzak | 526.000,00 |
| Hauteskunde-bidalketengatiko dirulaguntzak | 462.008,00 |
| Ekitaldia ixtean jaso gabe | 734.138,93 |

## 13. Konfiskatutako ondasun eta eskubideen itzultzea edo konpentsazioa (43/1998 Legea)

Federazioari ez zaio aplikatu 43/1998 Legean aurreikusitako zirkunstantzia hori.

## 14. Urteko kontuei txertatutako kontabilitatea duten lotutako aldeekiko eragiketak

Alderdiak ez du eragiketarik egin lotutako aldeekin, eta horregatik ez du ezabatzeko doikuntzarik, ezta Balantzearen eta emaitza-kontuaren gaineko eraginik ere.

Alderdian ez dago funtsezko alderik langileen soldatetan, goi-zuzendaritzakoak izan edo ez. Ekitaldi bakoitzean sortutako mota guztietako dieta eta ordainsariak berdinak dira langile guztientzat, goi-zuzendaritzakoak diren edo ez bereizi gabe.

Bizi-aseguruen primen ordainketan edo pentsioen alorrean alderdiak ez du betebeharrik hartu, zuzendaritza-organo goreneko lehengo eta oraingo kideei eta goi-zuzendaritzako langileei dagokienez.

Alderdiak ez die aurrerakinik edo krediturik eman goi-zuzendaritzako langileei edo zuzendaritza-organo goreneko kideei. Eta berme-betebeharrik ere ez du bere gain hartu.

Nolanahi ere, eta egokitzat jotzen bada, alderdiak aurrerakinak emango ditu soldaten gainean, goi-mailako zuzendaritzako langileen, zuzendaritza-organo gorenetako kideen edo bigarren mailako beste langileen artean bereizi gabe.

## 15. Finantza-adierazleak

### 1. FINANTZA- ETA ONDARE-RATIOAK

a) Likidezia orokorra
Definizioa: Aktibo korrontea / Pasibo korrontea

| | |
|---|---|
| 2.019ko aktibo korrontea | 4.610.418,24 |
| 2.019ko pasibo korrontea | 204.094,66 |
| Emaitza | 22,59 |

Unitatetik gorako balio batek aditzera ematen du maniobra-funtsa positiboa dela, eta unitatetik beherako balio bat, aldiz, egoera zail baten adierazgarri izango litzateke.

b) Zorrak
Definizioa: (Pasibo korrontea + Pasibo ez-korrontea) / (Pasibo korrontea + Pasibo ez-korrontea + Ondare garbia)

| | |
|---|---|
| Pasibo korrontea | 204.094,66 |
| Pasibo ez-korrontea | 0,00 |
| Ondare garbia | 4.613.384,19 |

(204.094,66 + 0,00) / (204.094,66 + 0,00 + 4.613.384,19) = 0,042365

Balio handi batek, kanpo-finantziazioaren mendetasuna handia dela emango luke aditzera. Balio txiki batek, aldiz, erakundeak zorpetzeko inolako mendetasunik ez duela emango luke aditzera.

## 2. EMAITZA-KONTUAREN RATIOAK

a) Diru-sarreren egitura

.- Diru-sarrera publikoak / Diru-sarrera totalak

| | |
|---|---|
| Diru-sarrera publikoak | 9.823.828,11 |
| Diru-sarrera totalak | 11.497.556,31 |
| Emaitza | 0,8544 |

.- Hauteskundeen diru-sarrerak / Diru-sarrera totalak

| | |
|---|---|
| Hauteskundeen diru-sarrerak | 3.616.864,61 |
| Diru-sarrera totalak | 11.497.556,31 |
| Emaitza | 0,3145 |

Gastuen egitura

.- Hauteskunde-gastuak / Gastu totalak

| | |
|---|---|
| Hauteskunde-gastuak | 3.720.406,33 |
| Gastu totalak | 6.985.715,51 |
| Emaitza | 0,5326 |

.- Fundazioengatiko eta lotutako beste erakunde batzuengatiko gastuak / Gastu totalak

Alderdiak ez du fundazio zein lotutako erakundeengatiko gasturik.

## 16. Itxi ondoko gertaerak

**.-** Ekitaldia itxi ondoren ez da ezer gertatu ekitaldia ixteko egunerako indarrean zeuden zirkunstantziak aldatu dituenik, eta beraz, ez da izan, erregistro- eta balioespen-arauak aplikatuzearen ondorioz, urteko kontuetan bildutako dokumentuetako zifrak doitu beharrik.
.- **.-** Ekitaldia itxi ondoren ez da ezer gertatu ekitaldia ixteko egunerako indarrean zeuden zirkunstantziak aldatu dituenik, eta

beraz, gertaera horren izaeraren arabera, ez da izan urteko kontuetan bildutako zifrak doitu beharrik, ezta memorian bildutako informazioa aldatu beharrik ere.

.- Ekitaldia itxi ondoren ez da egundoko garrantzia duen ezer ere gertatu, hau da, gertaera horri buruzko informazioa eman gabe, urteko kontuetako erabiltzaileen ebaluazio-gaitasunean eraginik izan lezakeen ezer ere ez da gertatu.

## 17. Bestelako informazioa

.- Ekitaldian ez da aldaketarik izan zuzendaritza goreneko, goi-zuzendaritzako eta ordezkaritzako organoetan

| .- Langileak | 2.019 | 2.020 |
|---|---|---|
| Langileak, batez beste | 34,15 | 30,55 |
| Langile finkoak. | 9,73 | 2,58 |
| Ez-finkoak | 24,42 | 27,98 |
| Desgaituak >% 33 | 0,71 | 1 |
| Gizon finkoak | 7 | 8 |
| Emakume finkoak | 3 | 4 |
| Gizon ez-finkoak | 14 | 15 |
| Emakume ez-finkoak | 16 | 13 |

.- Kontuak ez ditu ezein auditore pribatuk ikuskatu.

.- Ekitaldia ixtean, balantzean gorabehera batzuk jaso dira hainbat faktura ordaintzean egindako hutsegiteei loturik. Bikoiztu egin diren ordainketak dira.

Federazioa eraginpeko hornitzaileekin harremanetan jarri da, baina ekitaldia ixtean ez du erantzun positiborik jaso.

2020ko ekitaldian berriz ere harremanetan jarriko da haiekin, eta, bidezko bada, emaitzak aplikatuko ditu ekitaldiaren amaieran.

Gorabehera horien zerrenda doakizue jarraian

| PARTIDA | HORNITZAILEA | ZENBATEKOA | FAKTURA-ZENBAKIA. | ORDAINKETA DATAK |
|---|---|---|---|---|
| 410.099 | Graficas Iparragirre | 544,50 | 83 | 2019/11/20<br>2019/10/08 |
| 410.150 | Begoña Garcia C.B. | 102.61 | 0608955 | 2019/03/07<br>2019/03/14 |
| 410.154 | Kopi Bat Eusko Toner | 319,22 | 441 | 2016/11/04<br>2017/01/11 |
| 410.154 | Kopi Bat Eusko toner | 40,67 | 439 | 2016/11/04<br>2017/01/11 |
| 410.193 | Graficas Itxola | 55,66 | 187 | 2018/05/11<br>2018/06/11 |
| 410.243 | Guaixe Fundazioa | 1261,75 | gk000492 | 2018/03/21<br>2018/04/20 |
| 410.289 | Euskal Korreo | 227,65 | 143/18 | 2018/03/16<br>2018/03/20 |
| 410.293 | Imprenta Vital | 28,00 | 24621C | 2019/05/07<br>2019/06/18 |
| 410.324 | Graficas Lizaso | 1719,12 | 280133 | 2018/03/16<br>2018/03/09 |
| 410.358 | Javi&Rosana | 61.75 | F509 | 2018/10/05<br>2018/11/27 |
| 410.358 | Javi&Rosana | 100.57 | F722 | 2019/03/11<br>2019/05/11 |
| 410.432 | Goierriko Hedabideak | 1155.55 | G190032 | 2019/04/05<br>2019/06/05 |
| 410.492 | Irago Electricidad | 86,21 | 201900147 | 2019/03/28<br>2019/05/11 |
| 410.552 | Errota Print | 217,77 | 2019036 | 2019/04/15<br>2019/04/22 |
| 410.657 | Bilbo Kom. Koop. | 387.20 | 10/2019 | 2019/03/07<br>2019/05/02 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 410.711 | Lamas Gonzalez Rakel | 31.60 | Z000355 | 2018/08/27<br>2018/08/28 |
| 410.712 | Pack&Boxes | 24.90 | 019100 | 2019/06/27<br>2019/07/18 |
| 410.712 | Pack&Boxes | 45.00 | 019061 | 2019/06/27<br>2019/07/18 |
| 410.755 | Hibai Muniozguren | 50.00 | 432 | 2019/02/21<br>2019/02/21 |
| 410.940 | Lea Artibai Hedabideak | 181.48 | 190161 | 2019/06/04<br>2019/06/10 |
| 410.1027 | Cuadra Bus | 473.00 | 191108 | 2019/10/21<br>2019/10/31 |